

NOR GAIZTOAGO

Ereñoko Gabika auzoko Maria Josefa Ispizuak kontatuta

Senar-emazte batzuk arratsalde baten soloan laietan ziharduten. Nonbait norbaitek egindako gaiztakeria ahotan erabilita gero, emazteari itaun hauxe egitea buruak eman zion:

- Nor ote da munduan gaiztoago? Gizona ala emakumea?

Senarrak gizon gaiztoa gaiztoago dela esan zuen; emazteak, oster, emakume gaiztoa gaiztoagoa dela. Luzarotxo hautuan ekin arren, ez zuten elkar zuritu. Senarra, urrunago joan bada, belarra mozten zuen artean, emazteak etxeraino heldu eta gizonaren isilik afaltzeko zuen bisigua soloan zohipean sartu zuen. Gero lehengo arloari batak eta besteak helduta zeudelarik, gizonak zohipetik bisigua atera zuen. Zer esan ez zekiela geratu zen, lai ertzean arrain ederra ikusita.

- Hementxe sorturikoa da hori –esan zion emazteak.

Eta ohi legez, gizona baino goizago afaltzeko ardurak eraman zuen etxera. Beretzat bisigu erdia gertu eta jan ostean, beste egunetako afaria gertu zuen senarrarentzat: porrusalda, gaztainak eta artozko esne-zukua.

- Non da bada bisigua?

- Ze bisigu eta bisigu oste?

- Soloan aurkitu duguna.

- Zelako soloan! Ene! Galduak gara, zoratu zaigu gure Peru, galduak gara –esan eta negar keinuka auzora joan zen bere etxeko zorigaitzaren berri ematera.

Auzokoak etorri eta Peruren ahotik soloko bisigua kontua entzun zutenean, zororik zegoela eta lotu egin zuen gizagaixoa.

Biak bietara geratu zirenean, bisigu erdia mahira ekarrita,

- Peru –esan zuen emazteak-, hemen daukat nik soloan aurkitu dudana bisigua.

Peruk, lotuta zegoen lekutik, auzokoari aupadaka dei egin zien.

- Soloko bisigua neure zorakeria zela eta hor daukazue mahai gainean.

Zer esan ez zekiela zeuden guztiak. Etxeko andrea irri barrezka ziraun:

– Arratsaldean laietan ginela Peru eta... biok hautu hauxe erabili dugu: honek gizon gaiztoa emakume gaiztoa baino gaiztoagoa dela. Nik ezetz. Baietz beti beronek. Hortik eta hemendik gaiztakeriak nik gomutaratu arren, honek beronenari eutsi beti. Orduantxe buruak eman dit egin dudana egitea.

Orain bai Peruk eta bai zuok emakume baten gaiztakeria handiagoa dela ondo dakizue.

Resurrección María de Azkue

Euskalerraren Jakintza

Literatura Popular del País Vasco

II. Liburua: Ipuinak eta Irakurgaiak

Euskaltzaindia&Espasa-Calpe

Bilbo, 1989